- Zenbaki oso errezekin landutako estrategi ezberdinak erabili eragiketak buruz kalkulatzeko

3.- BURUKETAK

- Honelako buruketa motak menperatu
 - # ordularia-egutegia
 - # dirua (etekinak/galerak, beherapenak/igoerak)
 - # magnitude (landutakoak)
 - # portzentaiak

4.- MAGNITUDEAK

- Ordenatzen jakin
- Unitate aldaketak menperatu
- Gehiketa eta kenketa egiten jakin
- Era konplexutik era sinplera pasatzen jakin
- Menperatu behar diren magnitudeak honako hauek dira:
 - # luzera/distantzia # edukiera # diru balioa
 - # masa/pisua # denbora

5.- ESTADISTIKA

- Datu biltzea eta ordenaketa
- Maiztasun taula eraiki eta bete
- Grafiko sinpleak egin eta interpretatu
- Batzbesteko aritmetikoaren kalkulua

6.- GEOMETRIA

- Zirkunferentzia ezagutu
- Hiruki eta lauki errezen perimetroa eta azalera kalkulatzeko jakin

A.3. EBALUAZIOARRAKO IRIZPIDEAK

Irakasleak bakarkako prozesu ebaluaketa jarraitua egingo du. Ikasle bakoitzak, ikasterakoan, programaturako helburu didaktikoen aldetik dituen ahuleziak edo gabeziak erakusten dituzten, eta horrela orientazioa eta bakarkako laguntza lana eskeinitzeko dio. Prozesuaren behaketa honi esker, irakasleak hiruhileroko txostenak egingo ditu gurasoentzat, gomendio praktikoak eta testuinguruaren araberrako balorazioak

Ikasle bakoitzaren aurrerapena eta lorpenak ebaluatzeko, kontuan izango dugu zehaztuak izan diren kontzeptu, prozedura eta jarrera alderdiak.

3.- IZAERA OROKORREKO IRIZPIDE METODOLOGIKOAK ETA, BEREZIKI, IKASTETXEKO HIZKUNTZ EREDUA ETA PLANTAMENDUA ZEHAZTAPENA ESKATZEN DUTEN IRIZPIDEAK

3.1. METODOLOGIA

HAUR HEZKUNTZA

- Ikaskuntza esanguratsua eta eraikitzailea: ikas-irakaskuntza prozesuak eguneroko bizitzarako beharizan, interes, gaitasun eta esperientziekin bat eginda joan behar du eta, era berean, eduki berriek lehenik jasotakoekin lotuta egon behar dute. Haurrari ikaskuntza esanguratsurako joera aktiboa izaten lagunduko dion giroa sortzen ahaleginduko gara, mugimendua, ekintza librea, azterketa eta zentzumenen pertzepzioa erraztuz eta bultzatuz.
- Ikaskuntza aktiboa: behaketa, manipulazioa, esperientziazioa, aurkikuntza eta ikerkuntza prozedurak bultzatzen ditugu. Ikaskuntza prozesua guztiz bizia izango da, haurra inplikatu egingo da eta esperientziazioa duena barneratuko du. Prozesu honetan ezinbestekoa da inguru fisiko motibatzailea, aberatsa eta baretua izatea haurrak, material eta egoera estimulatzailez eta sortzailez betea.
- Estimulazioa: oso garrantzitsua da haurrei txiki txikitatik estimulu egokiak ematea ikusmenaren, entzumenaren, usaimenaren, ukimenaren eta dastamenaren zentzuak ondo garatu ahal izateko. Modu honetan, haurrak dituen gaitasunak hobeto aprobetxatu ahal izango direnez, inguruan dagoen guztiaz, hobeto jabetu ahal izango da.
- Maitasuna: maitasunaren oinarritutako hezkuntza iharduera, aurrera eramateko, beharrezkoa da haurren ongizatea eta garapen pertsonala maila sozialean, kognitibo eta oreka pertsonalean. Haurrek maitasunaren bidez egituratzen dituzten euren buruak. Maitatuak direla jakin beharra dute seguru sentitzeko. Maitatua dela ziurtasunez jakiteak laguntza handia ematen dio haurrari, onerako jakina, bere buruaz duen irudi egokia eta positiboa izatea lortzen baitu.
- Hizkuntzen irakaskuntza: etapa hau haurra hizkuntza berriekin harremanetan jartzeko unerik egokiena da, zenbat eta gazteago izan, burmuina orduan eta handiagoa delako hezkuntza lanaren eragina eta estimulu gutxiagorekin eboluzio neurologiko hobea eta handiagoa lortzen delako. Horregatik, garai hau ezin hobea da haurrei edozein hizkuntza irakasteko.
- Motibazio eta sormena: haurraren sormena estimulatzeko behar beharrezkoa da zentzumen guztien estimulazioa eta erabilera.
- Indibidualizazioa: hezkuntza dibertsifikatua eta indibidualizatua eskaintzeko asmoz laguntza pedagogikoa interes, gaitasun eta beharizan ezberdinetara egokitzen dugu, haurren iharduera, jolas eta atsedeen erritmoak errespetatuz.
- Autonomia: haurraren autonomiaren garapena bultzatzeko, giro psikologiko egokia sortzen saiatzen gara, horretarako beste lagunekin iritzi trukaketa, ekimena, jakinmina eta bere buruarengan eduki behar duen konfidantza

sustatuko dira. Aurrera eramaten den ekintza baloitzean, haurra bere identitatea eraikitzen joango da. Eta, bide batez, haurra bestek identifikatzen, ulertzen eta errespetatzen joango da.

- Familiekin elkarlana: gure hezkuntza proiektua aurrera eramateko beharrezkoa iruditzen zaigu familiekin elakrlana bultzatzea, ikastolan egiten den lana ulertu, bere balioa ezagutu eta beraiek ere haurraren heziketan parte har dezaten
- Aniztasunaren trataera: aniztasunari erantzuteko haur bakoitzari erantzun indibiduala ematen ahalegintzea ezinbestekoa da, horretarako zenbait faktore kontuan hartuz, adibidez: bere ahalmenak eta mugak, heldutasun maila, bere beldurrak, beharrak eta interesak, ezberdintasun pertsonalak, ...

LEHEN HEZKUNTZA

- Heziketa aktiboa bultzatu nahi dugu. Honen ondorioz, ikasleak pixkanaka bere ezagutza-eskemak eraikitzen ditu; honela, ikasleen ekinbidea eta gogoeta eskola-iharduerak eragiten duen norberaren garapenarako oinarri bihurtzen dira.
- Orokortasuna (globaltasuna) eta disziplinarrekotasuna (gai batzuen arteko lotura), ikasleen adinaren arabera bata zein besteari lehentasuna emanez. Honela, Haur Heziketan eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloan lehenak lehentasuna eduki beharko luke (arlotan guztien trataera gai berdinetik abiatzen da), geroago bigarren irizpideak eragin handiagoa izanik (arlotan ezberdinetan errepikatzen diren prozesu amankomunak eta bereziak elakrren artean lotuz).
- Elkarreragina, ikasleak ezagupen mailan edo sozioafektiboan irakasleekin eta ikaskideekin ikasten baitu. Horregatik, ikasleen eta ikasle-irakasleen arteko harremanak errazten dituen ikaste-egoerak bultzatu behar ditu irakasleak. Era berean, taldekatze era ezberdinak antolatuko dira (banakakoa, talde handiak eta txikiak, edo bestelakoak)
- Muinbakartasuna/aniztasuna. Kalitatezko helburuak eskuratu nahi izanez gero, ikasleen posibilitate eta gaitasun guztiak bilakatzeko arlotan biak kontuan hartu beharko ditugu. Irizpide honek neurri ezberdinak eskatzen ditu:
 - antolamendu mailan: lana talde handi eta txikietan, ikasle taldeen bikoizketak, errekueraketak, banakako laguntza edota bestelakoak
 - programaketa mailan: jarduera eta ekintza planifikatzerakoan egun ezartzen diren hiru bide urratuz behinik behin: beharizan bereziak adierazten dituzten ikasleentzako egokitzapenak, kurrikular aniztasuna (dibertsitatea) eta aukeragarritasuna. Aukera hauek orientabide eta tutoretza arloetan eragin berezia dute.

HEZKUNTZA-INGURUNEAREN ANTOLAMENDUA

Espazioa

Espazioaren antolamenduak, irakasleak metodologiari buruz duen ikuspuntua adierazten duena, ikasleek azaltzen dituzten berriazko ezaugarrietara , proposatzen diren jarduera motetara eta irakaskuntza erritmo eta interes ezberdinetara egokitu behar

du. Ikastetxeko espazioak antolatzeko orduan, ondoren adierazten diren irizpideak eta ditugun aretoak hauek izango dira:

- Hartzaindegia eta Haur Hezkuntzako espazioak bereiztuta daude gainontzeko etapa espazioetatik, beheko bi solairu kokatuz
- Talde bakoitzak gela bat izango du
- Ziklo edo etapa bakoitzak (lekuaren arabera) geletatik hurbil dagoen espazio bat egongo da irakasleentzat
- Gimnasioa eta liburutegia (guztiontzat)
- 2 Informatika gela (Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza/Batxilergoa)
- 2 Ingelera gela (Haur Hezkuntza/Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza/Batxilergoko hizkuntz laborategia)
- Psikomotrizitate gela (Haur Hezkuntza)
- Fisika, Kimika, e.a-ko laborategiak (Bigarren Hezkuntza/Batxilergoa)
- 2 jantoki (Hartzaindegia eta gainontzeko guztiontzat)
- Musika, keramika eta teknologia gela (guztiontzat)
- Kirol instalazioak

Gelaren espazioaren antolamendua malgua izango da, garatzen diren jarduerak ezberdinetara egokitu ahal izateko eta ondoren aipatzen diren puntuetan laguntzeko:

- gela barruko elkarreragina sustatzeko, bai irakasle eta ikasleen artean, baita ikasleen artean ere
- banakako ikaskuntza sustatzeko
- talde ezberdinekin batera lan egin ahal izateko
- ikasleei segurtasuna emateko
- gelaren antolamenduan eta zaintzean erantzunkizunak bereganatzen laguntzeko

Denboraren antolamendua:

Lehen Hezkuntza	Lehen Zikloa	Bigarren Zikloa	Hirugarren Zikloa
Euskera	4 ordu	4 ordu	4 ordu
Matematika	4 ordu	5 ordu	4 ordu
Ingurunearen ezaguera	3 ordu	3 ordu	3 ordu
Ingelera	3 ordu	3 ordu	3 ordu
Gaztelania	-	3 ordu	4 ordu
Eskulanak	2 ordu	2 ordu	2 ordu
Musika	1 ordu	1 ordu	1 ordu
Gorpuz Hezkuntza	2 ordu	2 ordu	2 ordu
Etika/Erljioa	1 ordu	1 ordu	1 ordu
Idatz-irakurketa	4 ordu eta erdi	1 ordu	-
Lan pertsonala	-	-	1 ordu

Ikasleak multzokaketa

Ziklo bakoitzaren amaieran, ditugun bi lerroetako ikasleak nahastu egiten ditugu. Arrazoiak ezberdinak izaten dira: bi gelen arteko konpetentzia iraunkorra ez izateko, gela barrukoa ere ez, lidergoaren arazoak ekiditeko, ikasle batzuen rol desegokiak saihesteko, ...

Nahasketa hauxe ziklo osoaren irakasleen artean egiten da, irizpideak bateratuta izateko.

Material eta baliabide didaktikoak

Curriculum-materialak eta baliabide didaktikoak, irakasleei nola irakatsi behar den erabakitzeko orduan laguntzen duten baliabide bezala, eta ikasleei ikaskuntza-prozesua errazten dieten baliabide bezala ulertzen ditugu.

Hauen artean garrantzitsuenak testu liburuak dira eta, gaur egun, argitaletxe ezberdinek argitaratutakoak erabiltzen ditugu. Orokortzen, arloaren arabera, honako hauek:

- Haur Hezkuntza: Ikastolen Elkartearen “Urtxintxa Proiektua”
- Lehen Hezkuntza 1. zikloa: Ikastolen Elkartearen “Txanela Proiektua”
- 2. eta 3. zikloa: Santillana (gaztelania)
Elkar-GIE (ingurune eta euskera)
Erein Proiektua (matematika)
Ikastolen Elkartearen “Eleanitz Proiek.” (ingelera)

3.2. IKASTETXEAREN HIZKUNTZ PLANTAMENDUA

OINARRIZKO PRINTZIPIOAK:

- Hizkuntza ezberdinen irakaskuntza koordinatua izango da, hizkuntza batetik bestera izaten diren ikaskuntza transferentziak eta hizkuntzen elkarren arteko errefuertzua ziurtatzeko.
- Ikastolan hizkuntzen ikaskuntza komunikazio ikuspegi batetik landuko da, beraz, eskola esparruan eta pertsonen artean, beste ikaskuntza garrantzitsu gehiago egitea ahalbidetzen duten kontestuetan erabiliko da.
- Irakasle guztiek dute erantzunkizuna, ikasleak lortzen duen hizkuntz garapenean, irakasle bakoitzaren arlo edo jarduera edozein izanda ere.
- Ingurunean euskara erabiltzeak, hizkuntza hau erakundeen arteko harremanetan, ikasleen arteko erlazioetan eta irakasleen artekoak ere erabiltzea bultzatuko du.

D hizkuntz eredua

Hizkuntza plantamenduei dagokienez, ondoren azaltzen diren irizpideak jarraituko ditugu:

1) Curriculum mailako alderdiak

a) Irakurmenarako eta idazmenarako ikaskuntza prozesua, euskaraz hasiko da. Gaztelaniazko testuen bidez, irakurmenarako eta idazmenarako jarduerak Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko lehenengo mailan hasiko dira lantzen.

b) Hizkuntzek curriculumean duten presentzia

Haur Hezkuntza

- ♦ Haur hezkuntzan esperientzia esparru ezberdinetan erabiliko den hizkuntza euskara izango da.
- ♦ Familiako hizkuntza gaztelania duten ikasleen sarrera kontu handiz zainduko da, irakasle eta ikasleen arteko erlazioaren lehen oinarria finkatu arte.

Lehen Hezkuntza

- ♦ Lehen Hezkuntzan, komunikazio hizkuntza euskara izango da, gaztelaniaren eta ingeleraren arloetan izan ezik.

2) Antolamendu mailako alderdiak

Komunikaziorako hizkuntza ...

...irakasleen artean:

- ♦ Ikastetxean, euskara izango du irakasleen arteko hizkuntza, ikasleen aurrean eta lan saioetan, bileretan, ...

...ikasleekin eta ikasleen artean:

- ♦ Irakasleek euskara erabiliko dute ikasleekin harremanak izateko, bai gela barruan baita kanpoan ere, ezinezkoa denean ama hizkuntza erabiltzea ahalbideratuko da komunikazioan etendurarik ez izateko.
- ♦ Ikasleek eskola jardueretan euskara erabiliko dute, eta jolas jardueretan euskararen erabilera sustatuko da.

...familiekin:

- ♦ Familiekin izaten diren erlazio pertsonalak eta idatziz bidaltzen zaizkien oharrek elebidunak izango dira, euskararen erabilpenari lehentasuna emanez.

...beste zenbait ikastetxe edo erakunderekin:

- ♦ Komunikazioak euskaraz edo bi hizkuntzatan garatuko dira

3) Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak

Ordutegi lektibotik kanpo antolatzen diren jarduera eta zerbitzu guztiak euskaraz izango dira. Hala nola, jangela, autobusak, kirolak, dantza, irteerak, ...

4.- ANIZTASUNAREN TRATAERARI BURUZKO IRIZPIDEAK ETA BERE TRATAMENDURAKO ESTRATEGIAK.

Eskola muinbakarrak ikasle guztiei bermatu behar die kultura amankomunerako irizpidea, gaikuntza bat eta oinarri prestakuntza bat populazio osoari eskuratuz.

Ikastolako ikasleen artean alde nabarmenak daude beren jatorri sozial, kultural, ekonomiko, arrazazko, hizkuntzazko, sexuzko, erlijiori buruz eta baldintza fisiko, psikologikoa eta abarri buruz.

Alde guzti hauek badute isladarik ikasgelako aniztasunean: ikaskuntz erritmoak, gaitasunak, harreman erak, interesak, balio eskalak eta abarretan.

Ikastolak bere gain hartu behar du aniztasun honen trataera, tresnak, estrategiak, oro har, hezkuntza bitartekoak ezarriz, ikasle guztien garapenerako.

Zentzu honetan, berdintasuna bermatzeak, ez du esan nahi homogenotzea, norbanakotu edo moldatzea baizik. Ikasle bakoitzaren egoera pertsonaletik abiatu beharko da irakaskuntzaren norbanakakotze prozasua burutzeko.

Ikasle batzuen eta besteen artean dauden diferentzia guzti horien ondorioz, ikasle-tipoaren aurrean orijinaltasuna asumitu beharko da, heterogenotasuna homogenotasunaren aurrean, integrazioa marjinazioaren aurrean, hezkidetzaren sexismoaren aurrean; hitz batean, positiboki balioztatu beharko da aniztasuna.

Aniztasunaren trataerarako estrategiak

Indibidualtasuna kontutan hartuta, ikasle guztiei eduki bateratuak eskeintzea da gaur egungo erreforman planteiatzen den puntu garrantzitsuenetariko bat.

Printzipio hau aurrera eramateko, heziketa aldeko neurri espezifikoak aurreikusten dira; alde batetik arruntak eta, beste aldetik, apartekoak.

a) Neurri arruntak

- Arlo ezberdinen antolakuntza. Arloetako unitate didaktikoetan helburuen lorpenaren maila ezberdinak markatuta agertzen dira, ikasleen egoera ezberdinei egokia den erantzuna emanez.

- Tutoritza. Erreforman tutoritzaren betebeharra bereziki aipatzen. Tutoritzaren helburua da ikasleen interesa eta jarrera ezberdinei atentzioa eman eta lantzea.

- Heziketen errefortzua. Aprendizai arloan arazodun ikasleei egokiena den erantzuna da heziketa arloko errefuertzoren helburua. Honetarako beharrezkoa da irakasle talde baten lan koordinatua (tutorea, arloetako irakaslea eta gainontzeko laguntzaileak diren irakasleak). Neurri hau aurrera eramateko, hasierako ebaluaketa egin ondoren zehaztuko da zer nolako laguntza eman (arloak, helburuak, lekua eta denboralizazioa).

b) Aparteko neurriak

- Urtebete gehiago ematea ziklo berean (errepikatzea).

- Curriculum Egokitzen Indibidualak. Errepikaren neurriak eta errefuertzoko neurriak emankorrek ez direnean zikloko minimoak lortzeko, aparteko neurri hau zehazten saiatuko gara. Azken neurri hau esanguratsua edo ez esanguratsua izan daiteke.

Goian aipatutako neurriak praktikara eramango diren ikasleen gurasoei semealaben aurrerapenetaz informatuko zaie, aurretiaz onarpen eta inplikazioz jokatzuz.

5.- EBALUAZIO-PROZESUARI BURUZKO ERABAKIAK.

EBALUAZIO KONTZEPTUA

Ebaluazioa, praktikari buruzko gogoeta-prozesua sistematikoa da. Hau da:

- planteatutako helburuen arabera, ebaluazio-irizpideak finkatu behar ditugu
- ikaskuntza-prozesuari buruzko eta bere emaitzei buruzko informazioa jaso behar dugu
- hori guztia, gure balorazioa egiteko eta ondoren azaltzen diren puntuei buruzko erabakiak hartzeko
 - * ikasleen ikaskuntzaren balorazioa
 - * hezkuntza-eskuhartzearen balorazioa
 - * ikasleen beharretara egindako egokitzapena
 - * errefuertzo neurriak eta sustapen-prozesuak

Ebaluazioak honako helburu hauek ditu:

- ikasleen ikaskuntza-prozesua, ikaslearen beraren gaitasunen arabera eta proposatu diren helburuen norabidean garatzen ote den baloratzea
- ikaskuntza-prozesuan, oztopoak non sortzen diren ikustea, eta arrazoiak azaltzea, bereziki eskola-ingurunean antzematen diren horiek
- ikaslearen ikaskuntza prozesua hobetzeko, beharrezkoak diren erabakiak hartzea
- beste irakasle batzuekin batera, jarraian eta zorrozki, irakaskuntzari eta Curriculum proposamenari buruzko gogoetak egitea, eta Curriculum proposamena ikasleen beharretara egokitzen ote den baloratzea
- Irakasleari eta bere familiari, ikaskuntza egoerari buruzko informazioa ematea, eta hobetzeko bidea erraztea

ZER EBALUATU?

Hezkuntza mailako funtzionamenduaren hobekuntza jarraia lortu nahi duen ebaluazioak, irakas-ikaskuntza prozesuako alderdi guztiak aztertu behar ditu, baita arloen arabera ebaluazioa egin ere. Honako hau da ebaluatu nahi dena:

- etapako helburu bezala proposatutako ikasleen gaitasunen garapen maila
- ikasleak, prozedurazko edukiak, jarrerazko edukiak eta kontzeptuzko edukiak zein mailatan bereganatu dituen
- proposatutako jardueren balioa eta eraginkortasuna
- gelako giroa, gela barruko elkarreraginak, taldeko egoera
- urteko antolamendua eta ikastolaren funtzionamendua
- barneko koordinazioa

Ebaluazio irizpideetan sartuko ditugu, zer ebaluatuko dugun jakiteko, behar ditugun jarraibideak; bai irakasle eta ikasleentzat, lana antolatzeko oinarritzko dena. Ebaluazio irizpideak definitzerakoan, honako hauek hartuko ditugu kontutan:

- irakatsi diren edukiak bakarrik ebaluatuko dira, eta ez ikasita dagoela suposatzen duguna (ikasleak aurretik dakartzan ezagupenak eta trebetasunak)
- irakasleok zehaztuko ditugu zeintzuk izango diren ebaluazio irizpideak eta unitate didaktikoa edo ebaluazio aldia hasi baino lehen, ikasleei jakinaraziko zaizkie.

NOIZ EBALUATU?

Ebaluazioa prozesu jarraia da, hezkuntza-prozesuaren parean dagoena; ikastola honetan, ondoren adierazten dugun moduan egituratzen dugu:

Hasierako ebaluazioa

- Ikasturte bakoitzaren hasieran, ebaluazio bat egingo dugu, ikasle bakoitzak dituen beharrak eta gaitasunak zeintzuk diren jakiteko, eta ikasturtearen antolamendua, taldearen berariazko ezaugarrietara egokitzeko
- Programatutako ikaskuntza sekuentzia bakoitzaren hasieran, ebaluazio bat egingo dugu, taldearen ikaskuntza prozesura egokitzeko, baita erantzun beharreko behar jakinetara egokitzeko ere
- Hasierako ebaluazioaren bidez, ikaskuntza berriari ekin baino lehen, ikasleen ezagupen eskemak, menperatze maila eta gaitasunak zeintzuk diren jakin nahi da.

Ebaluazio jarraia edo prozesu ebaluazioa

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan zehar, jarraikuntza eta ebaluazio jarraia egingo dugu, prozesuak aldatzea, egokitzea eta hobetzea ahalbidetzeko. Fase honetan ikasleen ikaskuntzen ebaluazioa, talde osorako ezarritako ebaluazio irizpide orokorrak eta ikasle bakoitzaren berariazko baldintzak kontuan hartuz egingo da.

- programatutako ikaskuntza sekuentzia/ebaluazio prozesu bakoitza bukatzean, jarraitutako prozesua eta lortutako helburuak baloratuko ditugu
- jarduera programa, taldeko ikasleen aurrerapenetara egokituko dugu, eta beharrezkotzat jotzen ditugun hezkuntza errefueztarako neurriak hartuko ditugu
- taldearen dinamikarekin erlazionaturiko neurriak hartuko ditugu
- ikasturte bakoitza bukatzean, ikaskuntzaren emaitzak egiaztatuko ditugu, ikasle bakoitzak dituen gaitasunak eta beharrak zeintzuk diren definituz
- ikasturte bakoitzaren amaieran, lortutako emaitzak ikusita, irakaskuntzaren azterketa egingo da, urteroko oroitzan agertuko dena
- ikasturtean zehar, behin gutxienez, ikastetxearen funtzionamendua aztertuko da, horrela, hurrengo ikasturterako egin beharreko aldaketak planifikatzeko
- Bost ikasturtean behin, gutxienez, ikastolako Curriculumj Proiektua eguneratzea egingo da, gure hezkuntza eskuhartzea ikastolako ikasleen errealitatea aldakorrera egokitzeko beharrezkoak diren aldaketak proposatuz

Proiektu amankomun baten erantzunkizuna duen talde bezala, gure praktikaren ebaluazio prozesua garatzeko beharra gure gain hartzen dugu, gure egoera ulertzeko, aldatzeko eta hobetzeko.

Ebaluazio hau egiteko, irakasle bakoitzak edo irakasle taldeak, jarraitutako prozeduretatik lortutako emaitzak aztertuko dira. Jarraituko ditugun prozedurak honako hauek izango dira:

- ikaskuntza jardueren garapenaren azterketa eta ikasleen ebaluazioa
- ikasleak, gelan, jolastokietan, pasabideetan, ...zuzenean azalduko portaera eta iritzien behaketa
- familiekin eta ikasleekin egindako galdeketetan eta elkarrizketetan lortu diren iritziak
- gelan erabiltzeko materialak aztertzea, testu liburuak, unitate didaktikoak, .
- Gelako irakaskuntza jarduera aztertzea, behaketaren bidez

Azken ebaluazioa

Ziklo bakoitzaren amaieran eta etaparen amaieran, jarraitutako prozesuaren eta lortutako emaitzen ebaluazio globala egingo da, funtzezko erreferentzia bezala ebaluazio irizpideak, arloetakoak eta orokorrak, erabiliz. Ebaluazioa, horretatik abiatuta, datorren ziklora pasatzeko erabakia hartuko dugu, edo ziklo berean urtebete gehiago egiteko erabakia, etapa osoan zehar behin bakarrik gerta daitekeela jakinda.

ZIKLOAREN EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
LEHEN ZIKLOA	BIGARREN ZIKLOA	HIRUGARREN ZIKLOA
<p>1.- Norberaren gorputza ezagutu eta beronetaz arduratzea eta zenbait jokabidek osasunean eta bizi kalitatean duten eragina baloratzea</p> <p>2.- Ohizko jardueretan nahiz talde harremanetan autonomiaz jokatzeko, inizatibak hartzeko eta harreman afektiboak finkatzeko aukerak emanez</p> <p>3.- Osasunari buruzko jokaera berezi batzuen (elikadura desorekatua, erretzea, edatea) ondorioak baloratuz eta elikadura eta higiearen oinarriko ohiturak eta ariketa fisikoak landuz, gorputz heziketaren garapena bultzatuz</p> <p>4.- Talde jardueretan plangintzan eta ekintzetan kolaboratzea eta demokratikoki ezartzen diren arauak onartzea, ikuspuntu ezberdinak errespetatuz</p> <p>5.- Pertsonekin, egoera sozial ezagunetan, herreman orekatua eta emankorrek finkatzea, elkartasunezko jokabide batez, sexu, gizarte maila, sinismen, arraza edo bestelako ezaugarri indibidual edo sozialengatiko bazterkeria oro errefusatuz</p> <p>6.- Ingurune natural eta sozialeko gertaera eta fenomenoak ulertzea eta hauen arteko erlazioak ikustea, eta ahl den neurrian ungurugiroaren defentsa, zainketa, hobekuntzan parte hartzea</p> <p>7.- Euskal Herriko ondare kulturala ezagutzea</p> <p>8.- Euskaraz ahozko zein idatzizko mezuak ukertu eta ematea, asmo eta komunikazio testuinguru ezberdinetan</p> <p>9.-Ahozko, gorputz, ikusmen, plastika, musika eta matematika adierazpideen bitartez komunikatzea</p>	<p>1.- Bakoitzaren gorputza ezagutu, apreziatu eta baloratu, ariketa fisikoa eginez eta higie eta gorputz zainketa mantenduz eta osasunarekiko ondorioak positiboki baloratuz</p> <p>2.- Ariketa libre edo zuzenduetan autonomiaz jokatu eta moldatu, inguruko pertsonekin harreman afektiboak ezarriz; norbera ahalmen eta autonomi garapenaren errekonozimenduari hasiera emanez</p> <p>3.- Talde eginkizunetan (jolas eta lan) parte hartu. Arauak onartu, norberaren interesak taldera egokitu eta dagozkion lan eta ardurak bete</p> <p>4.- Pertsonekin, egoera sozial ezagunetan, harraman orekatua eta emankorra finkatzea, elkartasunezko jokabide batez, sexu, gizarte maila. Sinismen , arraza edo bestelako ezaugarri indibidual edo sozialengatiko bazterkeria oro errefusatuz</p> <p>5.- Ingurune sozial eta sozialeko gertaera eta fenomenoak behatzea eta arakatzea eta hauen arteko erlazioak ikustea eta ahal den neurrian ingurugiroaren defentsa, zainketa eta hobekuntzan parte hartzea</p> <p>6.- Euskal Herriko kultur ondarearen ezaugarri aipagarrienak ezagutu eta estimatzea, beste lurralde eta pertsonen aniztasun kulturala eta linguistikoa errespetatuz</p> <p>7.- Euskarazko eta erderazko ahozko nahiz idatzizko mazuak ulertu eta ematea, asmo eta komunikazio testuinguru ezberdinetan, hizkuntzaren oinarriko arauak errespetatuz.</p>	<p>1.- Nork bere gorputza ezagutu eta baloratzea, horrela bere gorputzarekiko eta osasun-baldintzekiko duen erantzunkizunaren kontzientzia har dezan eta baita bere gorputz ahalmena eta adierazpen baliabideak erabiltzeko ere.</p> <p>2.- Beste ohizko ihardueretan eta bizi den gizartelaldeetan (familia, eskola, lagun talde, auzo edo herrian) autonomiaz jokatu eta portatzea, bere gaitasunak eta mugak ezagutuz (autoebaluazioa) eta bere buruarekiko konfidantza maila egoki bat garatuz</p> <p>3.- Parte hartzen duen eginkizun eta ihardueretan gauzak ondo bukatzea, nork bere irizpide arrazoituak erantsiz, ondo egindako lanaren aldeko jarrera azalduz, eta eskolan edo eskolatik kanpora iristen zaizkion informazio, arau eta iritziak batere pentsatu gabe onartetik ihes eginez</p> <p>4.- Bere ingurune fisiko-naturala behatu eta arakatzea eta lortutako ezagutzak bere eguneroko bizitzan sortzen zaizkion arazoak planteatzeko eta planteatze dakizkiokeenak modu autonomo eta sortzaile batean konparatzeko erabiltzea, behar izanez gero beste pertsonen laguntza eskatuz eta bere eskueran dauzkakeen baliabide teknologikoak modu kritikoki batean erabiliz. Era berean, ingurugiroa pertsonen bizi-kalitatearen elementu erabakior bezala baloratzea eta berori ahal duen neurrian defenditu, zaindu eta hobetzen lehiatsu laguntzea</p> <p>5.- Euskal Herriaren eta bizi den komunitatearen berarizko ezaugarri sozio-kultural batzuk ezagutu,</p>

<p>eta sensibilitate estetikoak eta sormena lantzea</p> <p>10.- Galderak eta problemak eguneroko esperientzian oinarrituz antzeman eta planteatzea</p> <p>11.- Gure bizitza eta elkarbizitza gidatzen duten oinarritzko baloreetaz konturatzeko, eta beraiek oinarritzat hartuz jokatzeko</p> <p>12.- Agerpen artistikoak baloratzeaz ikasiz eta gaitasun kreatiboa eta sensibilitatea estetikoak progresiboki garatuz, norbere desioak, sentimenduak eta iritziak komunikatzeko espresabide ezberdinak (musika, gorputz mugimenduak, hizkuntza, ...) erabiltzea</p> <p>13.- Gizaki integral bat bezala garatzeko bizitza zuzentzen duten jarrera eta baloreen garrantzia kontuan hartu eta beraien arabera jokatu</p>	<p>Atzerri hizkuntzan ahozko zein idatzizko mezu errazak sortu eta interpretatu</p> <p>8.- Ahozko, gorputz, ikusmen, plastika, musika eta matematika adierazpideen bitartez komunikatzeko eta sensibilitate estetikoak eta sormena lantzea, gozatuz eta errespetatzeko gaitasuna garatuz</p> <p>9.- Galderak eta problemak eguneroko esperientzian oinarrituz, antzeman eta planteatzea; baliabide egokienak erabiliz; informazioa jaso, erabili eta jakinarazi</p> <p>10.- Arazo arruntak konpontzeko testuinguru batean informazioa egokia lortu, hautatu, antolatu, irudikatu eta erabakiak hartzeko prozedura egokiak erabiltzea eta berdin erabaki horiek gauzatzeko ere; hartaratzeko behar diren baldintza material eta denborazkoak bideratu eta planifikatuz</p> <p>11.- Bizitza arautzen duten oinarritzko balioen eta gizabizikidetzaren garrantzia preziatu eta beroien arabera jokatu</p> <p>12.- Talde iharduerak planifikatzea eta burutzen parte hartu, demokratikoki ezartzen diren arauak eta betebeharrak onartuz</p> <p>13.- Pentsamendu arrazional eta zientifikoaren eraikuntzan heltzen joatea, gauzak kontzeptualizatu eta kategoriatan ezartzeko gaitasuna garatuz; eta baita horretarako behar diren prozedurak eta teoria esplikatzailak ezagutu eta erabiltzea ere.</p>	<p>bizi izan eta baloratzea, bere ingurunera eta euskal kulturara moldatuz, moldatze prozesu hori konformista ez baizik aktiboa izango delarik. Eta, era berean, hurbileko giza-talde eta kulturaren ezaugarri eta funtzionamenduak ezagutu, beroietan interesatu eta baloratzea</p> <p>6.- Ingurune fisiko eta sozialaren ezaugarri nagusiaren eta ingurune horretan ematen diren giza iharduera usuenen (lan, kultura, aisia, ...) arteko erlazioak ezartzea, gizarte mailako diferentziak ezagutu eta kritikoki baloratuz eta horien ondoriozko bereizkeriak gaitzetziz</p> <p>7.- Gizartean erabiltzen diren kodeak ezagutzea, eta berdin adin hauetan beharrezkoak diren oinarritzko kontzeptuak ere, ingurune fisiko-naturalak eta soziokulturalak transmititzen diguten informazioa ulertzeko, horrela inguruarekiko komunikazio on bat lortuz</p> <p>8.- Talde iharduerak planifikatzea eta burutzen parte hartu, demokratikoki ezartzen diren arauak eta betebeharrak onartu, norbere interesak eta helburuak artikulatu taldeko beste kideekin, ikuspuntu ezberdinak errespetatuz, eta dagozkien erantzunkizunekin bat etortzea</p> <p>9.- Elkarlanean iharduten duten beste sexu edo adineko pertsonekin harreman orekatu eta positiboak ezartzea eta egoera sozial ezagunetan (eskola lanetan, jolasa, eztabaida eta debateetan, lankidetzan, familiako eta adizkide arteko harremanetan, ...) pertsonen arteko harremanak erregulatzen dituzten portaera arau eta jokabideak egoki betetzea, sexu, gizarte klase, sinesmen, arraza eta beste ezaugarri pertsonaletan</p>
--	---	---

		<p>oinarritutako bereizkeriak baztertuz</p> <p>10.- Bizitza arautzen duten oinarrizko balioak eta giza-bizikidetzaren garrantzia preziatu eta berorien arabera jokatu</p> <p>11.- Hitzezko, gorputzezko, begizko, plastikazko, musikazko edo matematikako adierezpenen bidez komunikatu, sentsibilitate estetikoa, sormena eta eskulan eta arte-lanez gozatzeko gaitasuna garatuz</p> <p>12.- Pentsamendu arrazional eta zientifikoaren eraikuntzan heltzen joatea, gauzak kontzeptualizatu eta kategoriatan ezartzeko gaitasuna garatuz, eta baita horretarako behar diren prozedurak eta teoria esplikatzaileak ezagutu eta erabiltzea ere</p> <p>13.- Arazo arruntak konpontzeko testuinguru batean informazio egokia lrtu, hautatu, antolatu, irudikatu eta erabakiak hartzeko prozedura egokiak erabiltzea, eta berdin erabaki horiek gauzatzeko ere; hartaratzeko behar diren baldintza material eta denborazkoak bideratu eta planifikatuz</p> <p>14.- Euskararen ezagupena lortzea, berorren ulermena, ahozko eta idatzizko adierazpena eta irakurketarako zaletasuna garatuz, horrela ondorengo ikasketak euskaraz egiteko gai izan daitezen eta, era berean, euskara beren bizitzako testuinguru guztietan, nola ikasketetakoan hala jolas eta maitasunekoan, eta beren adinari dagozkion funtzio eta erregistro guztietan, erabili ahal izan dezaten. Eta jarrera saiatu eta konprometitu bat azaltzea euskara gorde eta indartzeari dagokionez</p> <p>15.- Eskolaren eremuan lehen komunikazio-</p>
--	--	---

		hizkuntza euskara izanez, eta ikaslearen lurraldean zein den kontuan izanez, gaztelania ulertu eta erabiltzea, hitzez zein idatziz, euskararen pareko maila batean. Eta hirugarren hizkuntza batean girotutako ahozko eta idatzizko mezu errazak ulertu eta produzitzea
--	--	---

NOLA EBALUATU?

Ziklo bakoitzaren irakasle taldeak egokien deritzon estrategiak diseinatuko ditu, eta beharrezkotzat jotzen dituen erabakiak hartuko ditu.

Irakastaldearen konpromisuak honako hauek dira:

- Teknika ezberdinak erabiliz, eta ez bakar batera murriztuz, informazioa bilduko dugu
- Behaketa sistematikoa. Behaketa egoera ezberdinak definitzetik abiatuta (prestatutako jarduerak, berezko egoerak, tailerak, taldeko jarduerak, ...) eta egokitzen diren lanabesen bidez (irakasleen egunekoa, kontrolerako zerrendak, behaketa gidoiak, behaketa eskalak, informazioaren erregistroak,...)
- Ekoizpen analisia: Besteak beste honela egin daiteke: ikerketa txikiak, liburuetan azterlanak, lanen laburpenak, koaderno pertsonalak, lan pertsonalak edo taldekoak, ...
- Probak eta galdeketak. Mota ezberdinetakoak, euskarri ezberdinen bidez (ahozkoak, idatzizkoak, ...)
- Gelan lagunduko ditugu atzemandako hutsegite nagusienak eta ez ditugu zigorra merezi duten akats bezala hartuko, baizik eta ikaskuntzan dauden zailtasunen seinalea bezala
- Ikasleak autoebaluazio egitera ohituko ditugu, nork bere aurrerapena ezagutzeko eta nork bere ikaskuntza prozesua autoerregulatzeko metodo bezala
- Eskura ditugun tekniken bitartez, ebaluazio negatibo baten arrazoiak bilatuko ditugu

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK

Hezkuntza errefuertzua

Ebaluazioaren jarraia prozesuan, proposatutako helburuak lortzen ez dituen ikasle ororentzat hezkuntza errefuertsorako neurriak proposatutako dira; horretarako, oinarrian ikasle orok ikaskuntza prozesuan oztoporen batekin topo egitean, oztopo horiek gainditzen lagunduko dioten neurriak eskuratzeko eskubidea duela kontutan hartuko dugu.

Edozein erabaki hartu baino lehen, ikasle baten hezkuntza oztopatu duen zailtasuna zertan datzan asmatzen saiatuko gara, eta ahal den neurrian, egoera ezberdinak bereiziko ditugu, ondoren adierazten denaren arabera:

- Programazioa edo proposatutako jarduerak nahikoak ez izatea edo ezegokiak izatea
- Taldeko egoera zaila izatea edo ikasle batek talde batean sartzeko arazoak izatea
- Ebaluazio-aldi honetan antzemandako zailtasun pertsonalaren bat
- Eskolako prozesua jarraitzeko oinarririk ez izatea

Egokitzen diren hezkuntza errefuertsorako neurriak jarduera didaktikoei buruzkoak direnean, ondoren azaltzen diren jarraibideak beteko ditugu:

- Arazoak ikusi direneko ikaskuntza-sekuentzia amaitzean, errekuerazioko jarduerak planteatuko ditugu; jarduera guzti horiek irakasleek zuzenean kontrolatuko dituzte

Honako hauek dira oinarrizko estrategia bezala erabiliko ditugunak:

- Ikasle hauei, gelan banakako jarduerak egiten direnean, lehentasunezko laguntza berezia eskaintzea
- Taldeko jarduerak proposatzea, non orain artean egoki bereganatu ez diren edukinekin lan egingo den

Zikloaren sustapenerako irizpideak

Hurrengo ziklora igaroko dira, ziklo bukatzean proposatuta zeuden helburu guztiak lortu dituzten ikasleak. Ikasleen promozioan, pertsona horiekin lan egiten duen irakasle taldeak kontuan izan beharreko alderdiak honako hauek dira:

- Ikasleak, ziklo osoan zehar lortutako atarramendu orokorra
- Zikloko helburuak zein mailetan lortu dituen
- Ziklo edo hurrengo etapa jarraitzeko gaitasuna, ondoren adierazten diren ataletan oinarrituta:
 - aurrerapena, motibazioa eta ahalegina
 - gizarte mailako eta kultur mailako ezagutza
 - heldutasun eta garapen pertsonala
 - taldean jarraitzeko egokitasuna

Informazio zabala lortzeko, ondoren adierazten dena egiten dugu:

- Ikaslearen autoebaluazioa
- Familiarekin elkarriketa
- Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan zehar, ikasleak izan dituen arazoak aztertzea
- Proposatu zaizkion hezkuntza-neurri osagarriei emandako erantzuna aztertzea

Zikloan urtebete gehiago egitea

Ebaluazioa negatiboa bada, ikasleak urtebete gehiago zikloan emateko erabakia, Lehen Hezkuntzan zehar, behin bakarrik har daiteke. Erabaki hau hartzeko orduan, ebaluazio-irizpideak eta zikloko promozio-irizpideak hartuko dira kontuan.

Erabaki hori hartzeko, ziur egon behar dugu, denborarekin, ikasleak aukera gehiago izango duela hobekuntza pertsonalerako, zikloa gainditzeko edo biak batera lortzeko.

FAMILIEI INFORMAZIOA EMATEA

Taldeko bilerak

Helburu bezala, familiei, interes orokorreko gaiei buruzko informazioa eskaitzea dute:

- Ikasturtearen hasieran, bilera bat egingo da familiei helburuei buruzko, oinarrizko edukiei buruzko eta ebaluazio irizpideei buruzko informazioa emateko, baita taldearen egoera orokorrari buruzko informazioa emateko ere.
- Ikasturtearen amaieran, hala pentsatzen bada, ikasturte amaieraren informazio orokorra eta hurrengo urterako egon daitezke aldaketak aipagarrienak aipatzeko.

Ordezkarri legalekin elkarriketa pertsonalak izatea

Ikastetxeak proposatuta, ikasle bakoitzaren gurasoekin ikasturte bakoitzean beharrezkoa ikusten diren alditan egingo dira (gutxienez behin).

Bilera hauen helburuak honako hauek izango dira:

- ♦ Gurasoei, euren seme-alabaren hezkuntza prozesuari buruz, bereganatu dituzten gaitasunei eta dituen beharrei buruz informatzea.
- ♦ Gurasoei, euren seme-alabari, etxean bertan eskain diezaioketen laguntzari buruzko informazioa ematea, batez ere ikasteko ohiturei dagokienez, lanaren antolamendua, erantzunkizunak, ...
- ♦ Ikasleak, etxean egiten duen ahaleginari buruzko informazioa jasotzea: ikaskuntza zailagoa egiten dioten arazoak, ebaluazioak ikaslearen ikaskuntzan duen eragina, ...; horrela, ikastolan egiten den eskuhartzea ikasleari egokitzeko.

Familientzako idatzizko txostenak

Familiei idatzizko txostenak banatuko zaizkie. Haur Hezkuntzako lehenengo mailako ikasleei ikasturte bakoitzeko bina eta Haur Hezkuntzako 2. eta 3. maila zein Lehen Hezkuntzako ziklo guztietako ikasleei ikasturte bakoitzeko hiruna (hiruhilero).

6.- HEZKUNTZA-ORIENTABIDERAKO ETA TUTORETZA EKINTZARAKO IRIZPIDEAK.

Tutoretza, taldeko ikasleekin banaka egin beharreko lana izateaz gain, ikas talde bateko irakasle guztiek elkarrekin antolatutako lantzat daukagu, taldean bertan eragina, laguntza, jarduerak eta erantzunak bideratzen dituen.

Tutore bakoitzak, ondoren adierazten diren aspektuetan laguntza emateko baliabideak jarri behar ditu:

- ♦ Ikastetxeko bizitzan ikasleen parte hartzea eta taldean parte hartzeko jarrerak garatzea.
- ♦ Taldea, talde bezala egituratzea, eta ikasleak gizarteratzeko gune izatea, ikasle bakoitza bertan positiboki integratuz.
- ♦ Zikloan zehar, ikasle bakoitzaren eskola ikaskuntza eta garapen pertsonala jarraitu behar dira.
- ♦ Irakaskuntza prozesuak ikaslearen testuingurura egokitu behar dira, eta ikaskuntza prozesuak pertsonalizatu
- ♦ Ikasleei, norberak bere nortasuna sortzen, norberaren burua ezagutzen eta onartzen lagundu behar zaie.

Familiekin koordinazioa

Ebaluazioaren atala adierazi den bezala, ikastexeak bilera ezberdinak antolatuko ditu, bai taldean baita banaka ere, informazioa trukatzeko; hala nola, programazioari buruzko informazioa, banakako eta taldeko aurrerapenak, baita sor daitezkeen arazoak ere. Gurasoek, elkarrizketa pertsonalak euren ekimenez izan ditzakete, urteko planean finkatzen den une eta moduan.

7.- CURRICULUM PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

Ikastolako klaustroak, curriculum proiektua landu du, gure esperientziako datu positiboak bilduz, bai taldekoak baita banakakoak ere, eta jarduteko konpromisoak hartuz, zeintzuk praktikara eramatea erabaki dugun.

Aldi berean, ondoren azaltzen diren alderdiak ebaluatu beharko ditugu:

- Onartutako akordioak praktikara eramaten ote ditugun
- Zenbait akordio, praktikara eramateko, garapen eta zehaztapen handiagoa behar ote duten
- Hartutako irizpideekin bat datorren proposamen didaktikoa egitea beharrezkoa ote den, eta ondoren, antzeman diren arazoei edo beharrei erantzun emateko baliogarriak diren ikustea.
- Irekita dagoen norabidean jarraitzeko edo norabidea aldatzeko prestakuntza prozesuak behar ote ditugun
- Aurreikusi ez genituen arazoak edo beharrak (berriro azertu behar direnak) sortu ote diren.
- Onartutako akordioak, proposatu ditugun helburuak betetzeko baliogarriak ote diren.
- Giza baliabideak eta baliabide materialak, proiektu honetan proposatzen diren irizpideen arabera erabiltzen ote ditugun.

Ebaluazio honen emaitza bezala, curriculum proiektuan aldaketak egingo dira, akordioetan sakontzeko edo akordio ezberdinak gehitzeko:

- Beharrak planteatzea, proposamenak aurkeztea, zikloko ekipoei dagokien lana da.
- Batzorde pedagogikoak, zikloko taldeen ekarpenekin, proposamenak landuko ditu, urteko planean sartuko direnak; proposamenak honakoak izango dira:
 - Berrikuntza proiektuak
 - Prestakuntza proiektuak
 - Aldatzeko proposamenak
- Bost urtero, curriculum proiektuaren ebaluazio orokorra egingo da, eta oinarrizko alderdien aldaketak kontuan hartuko dira, urteko planean, urtero berraztertuko diren alderdiak zeintzuk diren zehaztuz.